

itzulpena: Iñigo Roque

# Sophia derMello





**Munduko  
Poesia  
Kaierak**

# **Sophia de Mello**

itzulpena: IÑIGO ROQUE

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

- © Sophia de Mello
- © itzulpenarena: Iñigo Roque
- © edizio honena: Susa

2015eko martxoa

Munduko Poesia Kaierak  
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola  
<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz  
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea  
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu  
Telefonoa: 943 83 26 55  
Elektroposta: [susalit@armiarma.eus](mailto:susalit@armiarma.eus)  
Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Fernando Pessoaen figura hain da erraldoia Portugalgo poesiaren baitan, ezen haren aurreko eta ondorengo poesiagintzaz hitz egiten baita. Pessoaen ondorengo poeta nabarmenetakoa dugu, bada, Sophia de Mello Breyner Andresen, zeinak, bidenabar, maisuaren eragina jaso zuen (ikus *Zikladeak*). Izen luze horrekin sinatzen zituen liburuak, amaren abizenaren aurretik paratuz.

1919an jaio zen Porton sendi aristokratiko baten abarotan eta filologia klasikoa ikasi zuen Lisboako Unibertsitatean. Ez alferrik, gerora idatziko zuen poesia erreferentzia klasikoz josirik egongo da, batez ere Grezia zaharretik hartutakoak. Oso gazterik hasi zen poesia idazten, eta besteak beste, *Cadernos de Poesia* aldizkarian argitaratu zituen lehenengo poemetako batzuk, Eugenio de Andrade, Jose Regio, Jorge de Sena, Miguel Torga eta beste zenbait idazle portugaldar puntakoren aldamenean.

De Melloren poesia hertsiki dago loturik ezagutza estetikoarekin. Ezagutzak eta estetikak, egiak eta edertasunak, betidanik izan dute harreman paradoxikoa. Esaterako, ezagutzaren osotasunean aporia bat zegoela adierazi zuten Frankfurteko Eskolako filoso-

foek (Adorno, Wellmer). Alde batetik ezagutza diskurtsiboa genuke, *esan* daitekeen egia ez-konkretua; bestetik, ezagutza estetikoa, *esan* (logikoki) ezin den egia konkretua. Horregatik ezin dugu inoiz ezagutza absoluturik erdietsi, beti dagoelako galera alderen batetik.

De Mellorena, bada, egia estetikoa bilatzen duen poesia da, denbora-pasa bilatzen duena bainoago: “*O poema não fala de uma vida ideal mas sim de uma vida concreta [Poemak ez dihardu bizitza ideal bati buruz, bizitza konkretu bati buruz baizik]*”. Egia estetiko horrek lortzen du gauzekiko harreman zuzena, nahiz eta kontzeptualizatzerik ez dagoen. Horratx poesiaren balioa, munduko gauzekin harreman zuzena lortzea.

Hori dela eta, De Melloren poema ugarik dute halako kutsu transzendentala. Epifania bat azalartzen dute, hau da, munduaren supituko errebelazioa, eta gisa horretan lortzen da ailegatzea munduaren zerizan funtsezkoenera. Bere poesiaren marka lexikotako bat “ispilukeria” (*miragem*) hitzaren erabilera da, hain zuzen ere egia estetikoranzko oztopo den kontzeptua. Hitz hori ageri da esaterako *Izarra* poema ederrean, non izar batek ahots poetikoa gidatzen

duen munduko nahasmendu eta ispilukeria orotan zehar. Helmugara iristen delarik, ez dago ez urre ez suziririk han: *“Zenbat desertu / Zeharkatu dudan aurkitzeko zer eta / Gizakien artean hain gertu bizi zen hori”*. Izan ere, Emily Dickinsonek bezalatsu, De Mellok ez zuen bazter urrunetan bilatzen munduaren zerizana, ezpada arra eskas batzuetara. Estatubatuarraren jarrera antzekoa zuen idazketari dagokionez halaber. Wadsworth apaizak galdetu omen zion Dickinsoni behin zergatik ez zen irteten gehiago etxetik. Berehalakoan egin omen zion arrapostu: *“idatzi egiten dut”*. Ez dakigu pasadizoaren berri ote zuen De Mellok baina *Idaztea* poemak horixe gogorarazten ahal digu. *“Idazteak bakarraldiak eta desertuak eskatzen ditu”* dio hark ere Wadsworth apaizari erantzungo balio legez.

Sormenaz landa, itzulpengintzan ere nabarmendu zen De Mello. Portugesera itzuli zituen, besteak beste, Euripides, Dante eta William Shakespeare. Alabaina, autore portugaldarrak kanpora eramateaz ere arduratu zen; izan ere, Fernando Pessoa eta Luis de Camões itzuli zituen frantsesera. Beste hainbaten artean, Camões saria eman zioten 1999an, Portugalgo literatur sari gorena.

Honakoa duzu berrogeita hamar urte baino gehiagoz luzatu zen ibilbide poetikoaren Iñigo Roque-ren hautaketa eta itzulpen fina, Sophia de Mello Breyner Andresen euskaraz irakurtzeko estreinako parada.

BEÑAT SARASOLA

---

[nahiz hondakinak  
eta herioa diren]

Nahiz hondakinak eta herioa diren  
Beti ilusio guztien amaia,  
Ene ametsen indarra denez indartsuen,  
Orotatik birsortzen da goretsi-nahia  
Eta ene eskuak ez daude sekula hutsik.



---

# Itsasoa

## I

Munduko bazter guztien artetik  
Maitasun handi eta sakonenaz dut maiterik  
Hondartza estasiatu eta biluzi hura,  
Nire, itsasoaren, haizearen eta ilargiaren batura.

## II

Usaintzen ditut lurra zuhaitzak eta haizea  
Primaderak perfumez hanpatuak guztiak  
Haietan soilik desio eta xede dut ostera  
Itsasoko olatu-uhinen hasperen basatia  
Argizagietaratua oihu garbi baten antzera.

---

# Apolo Musageta

Hi hintzen lehenbiziko egun oso eta aratza  
Zeruertzak laudorioz blaitzen zituena.

Hi hintzen lerro bakoitzean mintzo zen espiritua  
Hi hintzen goizaldea loretan zena  
Itsasoko haizeñoak kulunkatua.

Hi hintzen espazioetako haizea edaten zuen oihala  
Hi hintzen keinu distiratsu zabala  
Bi beso mugagaberen artekoa.

Hi hintzen itsasoaren araztasuna eta indarra  
Hi hintzen maitasunezko ezagutza.

Ametsa eta presentzia  
Loratzen ari den bizi batena  
Bizi jabedun eta airean esekia.

Hi hintzen izari gorena, kanon eternala  
Aratz, akasgabe eta harmoniaz eraikia  
Biziaren bihotzean eta biziaz haraindi  
Ezkutuko erritmoen bihotzean.

---

# Hiria

Hiria, kaleetako marmar eta joan-etorri urduriak,  
Oi bizitza zikin, mehatxari, xahutua alferrik,  
Jakitea badirela itsasoa eta hondartza biluziak,  
Izenik gabeko mendiak eta desirarik  
Zabalena baino ordoki zabalagoak nonbaiten,  
Eta ni zure barruan nago itxirik, eta soilik dakuskit  
Murruak eta hormak, eta ez dakuskit  
Ez itsasoaren goraldiak, ez ilargien betealdiak.

Jakitea zeuregan hartu duzula ene bizia  
Eta narras darabilzula hormen itzaletan  
Ene arima behiala eskainia  
Olatu zuriei eta baso berdeei.

---

# Etxe zuria

Etxe zuria itsaso erraldoiaren aurrean,  
Hareazko eta itsas lilizko lorategia,  
Zure isiltasun ukigabea dago lotan  
Nireak izandako gauzen miraria.

... ..

Zurera itzuliko naiz keinuetan  
Hainbeste berotasun jaso ondotik  
Jendetzak eta desertua utzirik atzean  
Mamuei musu emanik, zeharkaturik  
Lurralde zehaztugabearen murmurioak.

Zurean, nire mundu batera piztuko naiz  
Eta erredentziozko izango dira zure lerroak  
Zeren eta han egongo dira araiz  
Nire izandako gauzen mirari osoak

---

# Paisaia

Hegazti ustekabekoak igarotzen ziren airean,  
Usain sakon eta mikatza zuen lurrak,  
Eta urrun itsaso zabalaren zaldi-lasterrak  
Bere adatsak astintzen zituen harean.

Zerua urdina zen, landa berdea, lurra iluna,  
Zuhaitzen haragia zen malgu eta zurruna,  
Baziren erretxinaren odol-tantoak  
Eta argia gainazpikatzen zuten hostoak.

Baziren ibili moteleko bideak,  
Esku sakonak zituen haizeak,  
Bazen deiadar argi eta libre bat  
Espazioei ihes egindako hegoarena.

Baziren pinudiak zerua han pausatzeko,  
Bazen pisua bazen kolorea zer bakoitzeko,  
Haren gelditasuna, sekretuan bizia zuena,  
Eta haren baiezko hasperena.

Baziren itsaso zabalaren egia eta kalipua,  
Zeinaren ahotsa, haustean, goratzen baita,  
Bazen hondartzen argia eta fingabeko itzulera  
Non haizea zuzen baitzebilen tarrapata.

---

# Lorategi guztietan

Lorategi guztietan loratuko naiz,  
Denetan edango dut ilargi betea,  
Azkenean, nire azkenean, nire direlarik  
hondartza guztiak eta itsasoaren jotzea.

Egun batez neu izango naiz itsaso eta hondar,  
Den guztiarekin egongo bategina,  
Eta nire odolak zain orotan dakar  
Besarkada hori egun batez zabalduko dena.

Orduan jasoko dut nire desiran  
Basoan bizi den sutea  
Nik ezagutua musu tankeran.

Orduan izango naiz paisaien mudantza,  
Ospakizun horren ugaritasun gordea,  
Nik irudietan ikusiriko esperantza.

---

## [hilak sendi ditut]

Hilak sendi ditut bioleten hotzean  
Eta ilargian dagoen hutsune handi horretan.

Lurra mamu bat da halabeharrez,  
Heriotza guztia troxatzen duena.

Badakit isilaren ertzean ari naizela kantuz,  
Badakit erroitzaren inguruan dantzatzen naizela,  
Eta ez edukitzearen inguruan eduki daukadala.

Badakit hil mutuen ingurutik igarotzen naizela,  
Eta badakit neurekin daramadala nire heriotza.

Haatik, nire izatea galdu dut hainbeste izakitan,  
Hainbestetan hil naiz nire bizitzan,  
Hainbestetan eman diet musu nire mamuei,  
Hainbestetan ez dut nire eginen berri izan,  
Non hiltzea erraza izango baita,  
Etxe barnetik kalera ateratzea bezain.



---

# Gizonak itsasondoan

Ez dakarte deus berekin. Irudiek,  
Ibilian topatuek, adio esaten diete aldiro,  
Ez dakarte deus berekin, zeren abiatuko dira  
Bakarrik eta biluzik, betidanik, eta haien bideak  
Haizea bezala espaziorako dira bakarrik.

Beren mugimenduan bertan troxaturik,  
Ibiltzeak tormenturen bat bailuan isilik,  
Haien behakoa betiko josi zitzaien  
Zeruertzen agerraldi amaigabeei.

Animalien antzera urrutitik antzematen diete  
iturriei,

Haien baitan dena mututzen da aditzeko  
Zer eta distantziaren bihotz-gora,  
Eta urrutiko zaie beren irrika bera.

Urrutiko zaie eguzkia, haiek higitzen dituenean,  
Urrutiko zaizkie gaua eta beren gosea.  
Urrutiko zaizkie beren gorputza eta lorratza,  
Harean banan-banan utzitako urratsak.

Zeren eguzkiaren beroak ez ditu higitzen,  
Zeren ez ditu izozten gauaren hotzak,  
Eta beren goseak ere ez die min ematen,  
Eta beren lorratza ere arrotz zaie.

Ezein lorategik, ezein begiradak ez ditu atzematen,  
Edozein paisaiatara iritsita ere ukigabe bakarrak  
Aurkitzen dituzte, han, aldentzen den urrutia  
Haiek herrestan daramatzen isiltasunaren deia  
Lekuak trabeskatzen dituzten hegazti atzerritarrak,  
Eta haien gorputza hotz-korapilo huts bat da,  
Itsaso gehiago eta hutsarte gehiago bilatzen duena.

---

# Itsaso soinularia

Itsaso soinularia, itsaso hondogabe, azkengabea.  
Zure ederra handiagotzen da bakarrik gaudelarik.  
Eta zure ahotsari hain sakon eta barrendurik  
darraio nire ametsaren dantza gordeena,  
Non tarteka iruditzen baitzait ziurrena  
Nihaurentzat sorturiko mirari bat zarela.

---

# Dioniso

Zuhaitz ilun eta isilen artean  
Sutan dago zeru gorria,  
Eta arrats-kolore sekretutik jalgia  
Dioniso dabil bideetako hautsetan zehar.

Iraileko igaliak dauzka naro  
Aurpegian, eta haren adarrek oro  
Badute perfekzio gorri eta bete bat,  
Aintza suzko eta bare hori  
Jainko eta hilkorren arteko bereizgarri.

---

# Abiatzea

## I

Zure hatzen arteko lore single bat bezala  
Bada dantza azkengabe baten harmonia,  
Eta ezin esanezko isiltasun bat duzu, lorategia  
Ilargiteek eta sekretuek hartu balute bezalako.

## II

Zure eskuetan mundua zenekarren enea,  
Enetzat zure gustuetatik iragazten ziren  
Izar infinituak, itsaso hondorik gabea,  
Eta zure begietan mitoak ziren sortzen.

Urrutiko lorategiak ezagutu nituen zugaran  
Eta esan zenizkidan haitzarteen kontuak  
Eta elkarrekin zulatu genituen sekretuak  
Ahotsetan isiluneetan liparretan han.

### III

Zure begiak aintzira dira eta iturri,  
Eta zure izate osoan bada  
Ametseta larri, garden eta triste bat  
Paisaia batena, dena mendi eta pinudi.

Zure ahotsean hitzak gaueko dira  
Eta gauza larri, handi, muker guztiak  
Zure antzekoak.

---

# Egun batez

Egun batez, hilik, ahiturik, ostera  
Libre biziko gara nola bizi diren animaliak  
Eta, hain unaturik ere, loratu egingo gara  
Itsaso eta pinudien haurride biziak

Haizeak unadurak ditu eramango  
Keinu asaldatu eta irrealenak  
Eta gure adar abailduei dizkie berriz emango  
Animalien zalutasun arinak.

Orduantxe ibili ahalko gara atzenean  
Misterio horretan barrena, zeina bildurik baitoa  
Pinudien berdean, itsasoaren ahotsean,  
Eta hor ernatuko zaigu haren mintzoa.

---

# Medea

(OVIDIORENETIK EGOKITUA)

Hirutan jira, hirutan asetzen ditu  
Bere ile arinak iturriko urez,  
Hirutan aldarri, hirutan bihurrika  
Eta dio: "Gaua, nire sekretuei leial zaren hori,  
Ilargi eta argizagiak, egun-argiaren ostean  
Itzal isila argizatzen duzuenak,  
Hekate hirukuna, beti sokorritzen nauzuna  
Nire keinuen haria adi gidatuz,  
Basoetako jainkoak, infernuetako jainkoak,  
Nigan barrendu dadila zuen indarra  
Zeren zuen laguntzaz gai naiz  
Ibaiak beren ertz izuetatik  
Lasterka itzularazteko beren iturrietara.  
Gai naiz barea itsasoetara hedatzeko  
Edo haiek bitsez eta olatu sakonez betetzeko,  
Gai naiz haizeei niregana deitzeko, gai naiz  
Haiek lauoinka jaurtitzeko espazioetara.  
Nik esandako hitzek eta keinuek,  
Berbaroaren inguruan nik atonduek,  
Urruneko zuhaitzak bihurritzen dituzte eta gizakiak



Haien oihartzunean sarraskitzen eta hiltzen dira.  
Gai naiz animaliak tormentuz betetzeko,  
Lurrari kantarazteko, mendiak  
Kordokarazteko eta harkaitzak lorarazteko”.

---

# Zeruertz mortua

Zeruertz mortua, ezer ez daukana  
Egun batez behiala  
Piztu zintuen jai alai hartatik.

Zure lerro behiala sakon eta zabalenak  
Gaur hutsik eta higaturik daude denak,  
Neure desirak higaturik.

Orduan pinudi berdea jaisten zuen  
Gauak urrats isiletan dantzan,  
Eta itsas puska hartan urrun sutan  
Espazioen deiadar infinitua zegoen.

Hareatzan argitasuna kantari,  
Pinu bakoitzak bazeukan eduki  
Bere lerroaren goraldi eutsiezina naski  
Heroikotasun ororen adigarri.

Zeruertz mortua, ene ametsaren hezurdura,  
Fruitu gabe hildako arbola,  
Uzten ditut zure inguruan  
Bakardadea, kaosa eta dolua.

---

# Erbestea

Egunak ehunduz aiduru  
Pentsu eta beha.

Lili gabeko lur batean, non itsasoa ez baita itsaso  
Eta ontziak enigmak baitira,  
Ez dut konprenitzen haize-oihalen noranzkoa  
Denak narama zeruertz hotzen gose-egarrira.

---

[gure hatzek  
zabaldu zituzten]

Gure hatzek zabaldu zituzten esku itxi  
Perfumez beteak  
Menturatu ginen ahots eta keinuetan barrena  
Paisaia tankerako pasioak susmatu genituen  
Eta gorputz bakoitza bide bat zen  
Baina bat jaiki zen eta dena hartu zuen  
Eta hegoak lerratu zitzaizkion besoetan.

Baso, zingira eta ibaiak,  
Geldirik bidaiatu genuen makurturik,  
Leihoetan zerua diz-diz ari zela.

Eta hiria itsasontzi bat bezala abiatu zen  
Gauean barrena.

---

# Emakumeak itsasondoan

Nahasirik haien adatsak eta haizearenak, gorputza  
zoriontsu dute hain berena eta hain  
trinkoa izateagatik, guztiz librea.

Besoak hondartzaz haraindi jaurti eta eskumuturren  
zuritasuna sartzen da aparretan.

Hego zorrotzeko hegaztiak iragaten dira eta haien  
begien kurbadurak luzarazi egiten du  
lorratz azkengabea zeruen zurian.

Ahoa zeruertzari lapaturik arnasten dute luze-luze  
mundu jaioberri baten lehena.

Haien hatz-mamiek ukitzen dute airea hasi eta  
bukatzen den zorabio atseginezko  
gailurra.

Eta haien sorbaldei alga bat datxekie, zorionetan  
hain berdea da-eta.

---

# [autoak igarotzen dira]

Autoak igarotzen dira eta etxea dardarka jartzen  
dute

Ene bakardadearen etxea.

Aspaldi bizi izandakoak dira gauzak:

Airean badira espazio iraungiak

Forma hutsartean irarriak

Behiala hemen izandako ahots eta imintzioenak.

Eta ene eskuek ezin dute ezer atzeman.

Halere gau aldera begiratzen dut

Eta hosto ororen beharra daukat.

Zure bizia jira-bira dabil airean,

Nigandik urruti...

Ez izatearen tormentu hau jasateko ere

Bakarrik egon beharra daukat.

Aurretik bakardadea partida amaigabeetan  
Egitasmo eta galderetan,  
Heriotzen eta negarren zama  
Iraungiezinarekiko borrokaldietan  
Aurretik bakardadea guztizkoa delako.

Sinesten dut ene biziaren biluztasunean.  
Hartan gertatutako oro hutsala dateke.  
Dena airean zintzilik dago ene sentimenduan  
Betikotasuna mendien gainetik flotean dagoela.

Lorategi, lorategi galdua  
Ene zango-besoek inguratzen dute zure absentzia...  
Hostoek batak besteari esaten diote zure sekretua,  
Eta ene maitasuna isilekoa da nola den izua.



---

[izutzen nau  
zu maitatzeak]

Izutzen nau zu maitatzeak mundu izeneko toki  
hauskor batean.

Gaizkitzen zu maitatzeak akats-leku honetan  
Denak xehatzen eta mutuarazten baikaitu  
Denak engainatzen eta banatzen baikaitu.



---

# Bitartea I

Ene nahi bakarra da portu honetako isila  
Isilik egotea itsaso gorria, itsaso hila

Galdurik, balantzaka  
Ur beteen erritmoan

Bakarrik egon nahi dut izu-laborrian  
Denbora itxuragaldu honetan,

Bakarrik egon nahi dut arratsaldean  
Zuhaitz berdeek abandonatzen nautenean.

---

[egunetik egunera  
gero eta agerikoagoa da]

Egunetik egunera gero eta agerikoagoa da abiatzen  
garela,

Izan ginen hartarako itzulbiderik batere gabe,  
Egunetik egunera orduak gero eta gabetuago daude  
substantziaz:

Alferrik dira nostalgiak eta izuak oro.

---

# Liburu suntsitu bateko poemak

## III

Hormak zuriak dira eta izu-izerdia darie  
Itzalak astiro xurgatzen du ene odola  
Dena ni bezala itxia eta barrukoa da  
Ez dakit nondik sar litekeen haizea

Berdetasun hau guztia sekretu bat da  
Ahopekako murmurio bat hilentzat  
Lurraren deitore hezea  
Gau-egunik gabeko itzalpe batean.

## VII

Ez xerka egiarik dakizun horretan  
Paturik ez xerka zure keinuetan  
Gertakari oro da bakarti  
Jakitez nahiz legez kanpoko  
Erritmo itsu zenbatezin batean  
Non izenik ez baita egundo aipatu

## VIII

Ez nabilkizu deika zu ezagutzeko  
Nik besoak zabaldu nahi ditut zu sentitzeko  
Ontziaren oihalak haizea sendi duen bezala

Ez nabilkizu deika zu ezagutzeko  
Dena ezagutzen dut ez izatearen peko

Otoi etorri eta niri eman  
Zuretik zerbait doi-doi han bizitzeko

---

# Euridizeren sonetoa

Euridize galdurik eta itsasoaren  
Usain eta ahotsetan Orpheoren bila:  
Zeru-lurrak hartzen dituen absentsia,  
Mundu osoa isiltasunez duena estaltzen.

Halaxe behe-lainoko goizak nituen edan  
Eta bizirik egoteari eta ni izateari utzita  
Bilatzen nuen enea zen aurpegia,  
Ene aurpegi zinezkoa sekretuan.

Haatik ezin zu kausitu nola itsasoetan hala  
Ispilukerietan. Bakarrik zen ageri  
Paisaiaren aurpegi leun eta birjinala.

Eta garden bilakatu nintzen poliki  
Zure irudira jaiotako hilotz bat bezala  
Munduan galdua elkor eta antzuki.

---

# Denbora zatikatuan

Eta orain oi Jainkook zer esango duzue nitaz?  
Arratsaldeak zerraldo hiltzen dira lorategian.  
Zuetaz ahantzi naiz eta oroitzapenik gabe  
Ibili nabil ibiltokietan barna non denborak  
Munstro batek nola bere burua irensten baitu.



---

# Egunen anemona

Itsasoa profanatu zuen hura  
Denboraren arku urdina traditu zuena  
Bere garaitzaz mintzatu zen

Legea urratua zuela esan zuen  
Bere askatasunaz mintzatu zen  
Mintzatu zen bere buruaz Mesias batez bezala

Halere, lurrean ikusi nuen zikin eta maspildurik  
Egunen anemona gardena

---

# [bide eskematikoak]

Bide eskematikoak  
Itxaronaldi ugarikoak.  
Zer abandonuk egiten du  
Ene arima bi zati?

Elkarren aurkako bi zati  
Haurrideak eta diferenteak  
Hain arrotzak non  
Maitasunik gabe elkartzen baitira.

Begitarte ukigabea  
Orain hain galdua  
Denbora geldiaren  
Gau azkengabea.

Esperantza eta luzamendu  
Bi ilbeteren artean  
Ibili nintzen airean.

Ontzien bisaietan  
Galdu nituen ene keinuak  
Eta haizeak ebaki zuen  
Ene aurpegia bi bisaia  
Hutsal eta banatutan.

Oi naufrago urdinok gatzezko  
Eta koralezko zutabeetan biribilkatuok  
Eta alga berdeok eta pinudiak antzo  
Auhenska ari diren masta triskatuok.

Oi zenbatetan ikusten zaituztedan hor zaudetelako  
Bizitzak oroitzarik ez duen lekuan  
Non pentsuak eta itxurak oro  
Apar desegina baitira.

---

# Naufragoa

Orain hilik zealdoka  
Tirainen zaporean habil  
Betseinen lekuan marmokak.

Orain errege haiz irudi aratzen artean  
Herrialde garden eta beirazkoetan,  
Bihotzik gabe eta oroitzarik gabe  
Presentzia guztietan diluitua.

Orain jareginik bizi haiz  
Poemetako etenaldi zurian.  
Hire gorputza jaiki eta eror zabilek olatuka,  
Izenik eta destinorik gabe  
Ur garbi-xahuan

---

# Kaiialdea

Gaueko itsaso batera abiatzen dira ontziak,  
Gaueko itsaso bizi eta urdin batera,  
Marmoka-bihotz baten eitekoa  
Anemona-barrukoa bera.  
Eraz  
Erraz  
Suntsipenik gabe eta poemarik gabe,  
Gaueko itsaso arrainez bioleta batera  
Suntsipenik gabe eta poemarik gabe  
Elementia bat argik txunditurik  
Gaueko itsaso batera abiatzen dira ontziak.  
Hutsartera abian.  
Heiagora egiten du erlats han geratzen denak  
Kaiialdean zatikaturik eta mutilaturik  
Eta poema artean suntsiturik durduzaz.

---

# Graça-ko nokturnoa

Basa-hotsa dabil lorategi txikian  
Basa-hotsa zedroen zokoan  
Ilbetearen iman urdinaren mende  
Ibai ezkatatz beteak ñir-ñir dagi.  
Beltz argiz beterik ñirñirka dabil besteren hiria.

Iragarki argidunen hiriak ñir-ñir dagi  
Han dira espiritismoa tabernak zinemak  
Han dira leiho ilunak eta haien plazer ilunak  
Ñirñirka dabil besteren hiria.

Han dira auzune kalezulodunak eta eskaileradunak  
Kale-argi triste eta nostalgikodunak  
Emakumeak baxera garbitzen leihoen aurrean  
Garrasi itoz gainezkaturiko karrikak  
Oinotsen kriskitinak kantoietan  
Autoen biratzeen kurrinkak  
Errezelen osteko itzalak  
Ziklope haluzinatuak.

Elizatik elizara ordua jotzen dute ezkilek  
Eta komentukoa lako bake batek dirau han  
Antzinako hiria hondarretatik jaiki balitz bezala  
Eta harekin batera beraren kandela ikaratiko gau  
Menturaz eta soseguz betea.

Halere, besteren hiriak ñir-ñir dagi  
Gau logabe  
Argi fluoreszentez betean  
Gau itsu gor gatibu batean  
Non kexu eten bat baitabil auhenka.

Bakarrik nago besteren hiriaren kontra.  
Neure buruarekin  
Kaiaren burdelaren kalearen gainean  
Aratz eta pizturik  
Argizagien isilak dirau.

---

# [errealitate aurkitu eta maitatuaren hirian]

Errealitate aurkitu eta maitatuaren hirian  
Haizeñoarekin ibili nintzen oinez kaleetan barrena  
Baziren horma zuriak eta leiho pintatuak

Atxaparrak loratzen ziren eta dir-dir zegiten  
Limoiondo hosto-leunek  
Mizpiraren hosto bat jausi zen urmaelean

Eta denbora nire bila etorri zen nahasiz  
Nire keinuak eta zureak bereetan  
Mila eta mila gau agertu ziren bata bestearen  
ostean

Eta nire aurpegia hegaz zebilen goizetik  
arratsaldera

Eta kantoiek beren itzal urdinak altxatu zituzten  
Isiltasun arabiar batean barrena  
Eta apiriletik alorretatik uztaz beteriko perfume bat  
etorri zen

Eta atea ireki nuenean izarrak agertu ziren



\* \* \*

Errealitate aurkitu eta maitatuaren hirian  
Eguzkiak bira egiten du astiro plaza eta logeletan  
Erratza pasatzeko eta gaua prestatzeko  
Gau biribil eta ernea

Eta hiriko atea bi itsasontziz egina da

Oi nork aipa berdea edo urdina eta hozkirria  
Uraren arnasbehera eta haizearen perfumea  
Ikusten da goizean gauza bakoitza banaka sortzen  
Ikusten da gau gardenaren uhina hausten

---

# Atzarriko gara

Atzarriko gara berriro Knososko murruean azpian  
Eta Delphosen munduaren erdian  
Atzarriko gara berriro Kretako argi latzean

Atzarriko gara han non hitzak  
Gauzen izenak baitira  
Non soslaiak argi eta biziak baitira  
Kretako argi zorrotzean

Atzarriko gara han non harria izarra eta denbora  
Gizakien erresuma baitira  
Atzarriko gara aurreko lehorrera begiratzeko  
Kretako argi garbian

Zeren komeni da giza bihotza argitzea  
Eta gurutzearen doitasun beltza altxatzea  
Kretako argi zurian

---

# Izarra

Ibili nintzen gauez  
Isiltasun eta hotz artean  
Izar sekretu bat gidari bakarra nuela

Arrisku handiak agertu zitzaizkidan gauez  
Iruditzen zitzaidan nire izarra iruditzen zitzaidala  
Egiazkoa nahiz eta hura isla soil bat izan  
Neonez apainduriko hiri batena

Nire bakardadea koroa bat begitandu zitzaidan  
Perfekzioaren seinalea nire bekokian  
Baina ikusi nuen haizeak ni makurraraztean  
Ene koroa hura burdinazkoa zela  
Hain astuna ezen okerrarazten baininduen

Mendiko hotzaz pentsatu nuen  
“Nire araztasunak inguratzen eta setiatzen nau”  
Halere nire pentsamendua usteldu zen  
Eta gauzen araztasunak ñir-ñir zegien  
Eta ikusi nuen garbitasuna ez nintzela ni

Eta haragiaren flakezia eta espirituaren ispilukeria  
Ahots beldurgarri bilakatu ziren  
Mendiko harriei mintzatzeko esan nien  
Baina harri zirenez isildu egin ziren  
Bakarrik, eldarniotan eta galdurik  
Izar zohardi batek izutzen ninduen

Eta gauez ibili nintzen nire itzalak  
Imintzio larriz setiatzen ninduen  
Isiltasuna eta beldurra  
Zebiltzan bazter-leku desolatuetan  
Orduan nigana etortzen ikusi nituen  
Izar batek argizatutako haiek

Eta honela esan zidaten: “Zatoz gurekin  
Zu ere izar horren atzetik ari bazara”  
Orduan jakin nuen segika nenbilkion izarra  
Zinezkoa zela eta ez irudizkoa

Gautzar biribilek setiatu gintuzten  
Gandutzarrek ispilukeriak erakutsi zizkiguten  
Oihartzun herratuen isilalditzarrek  
Urrutiko noranzkoetatik dei egin ziguten  
Eta hiru gizakien lurreko itzala

Nire urratsen ondoan zebilen  
Eta nik ikaraz ikusi nuen izar hark  
Gizakien hirirantz gidatzen gintuela

Eta zeruko izarra gelditu zen  
Kale hits kolorge baten gainean  
Non argiak errautsaren kolorea baitzuen  
Izadiko berde urdinetik oso urrunekoa

Han ez nituen maite nituen gauzak ikusi  
Ez eguzkiaren dirdira ez urarena

Ospitalearen eta presondegiaren ondoan  
Lukurariaren eta tenplu profanatuaren artean  
Kalea inon baino tristeago eta bakartiago den  
lekuan

Non irudi baitu dena abandonaturik dagoela  
Izarrak leku bat seinalatu zuen han

Leku hartan pentsatu nuen: “Zenbat desertu  
Zeharkatu dudan aurkitzeko zer eta  
Gizakien artean hain gertu bizi zen hori”.

---

# Hirekin zeharkatzeko munduaren desertua

Hirekin zeharkatzeko munduaren desertua  
Biok biotara buru egiteko herioaren izuari  
Egia ikusteko eta beldurra kentzeko  
Hire urratsen ondoan ibili ninduan

Higatik utzi nitian ene erresuma ene sekretua  
Ene gau zalua ene isiltasuna  
Ene perla biribila eta haren sortaldea  
Ene miraila ene bizia ene imajina  
Eta paradisiko lorategitik alde egin nian

Hemen kanpoan egun latzaren belorik gabe  
Mirailik gabe ikusi nian biluzik nengoela  
Eta eremuari denbora zeritzola

Horregatik hik jantzi ninduan keinuz  
Eta nik ikasi nian haizean bertan bizitzen

---

# Ospitalea eta hondartza

Eta ospitalean barrena ibili nintzen  
Non zuria desolatua eta zikina baita  
Non zuria kolorerik ez den lekuari datxekion kolorea  
baita

Eta non argia errauskara baita

Eta hondartzetan eta landetan barrena ibili nintzen  
Itsasoaren urdina eta urrunaren bioleta  
Bil-bil egin nituen samaren bueltan  
Jainko bat bezala ia libre ibili nintzen hondartzan

Ez nion harriari zure galde egin Jauna  
Ez nintzen zutaz oroitu haizea edatean  
Haizea haize zen eta harria harri  
Eta hura aski zitzaidan zinetan

Eta goiz itsastarreko espazioetan  
Ibili nintzen ia libre jainko bat bezala

Eta itsuen bizimodua izan nuen egun osoan

Halere ospitalean aurpegia ikusi nuen

Ez pinudi ez haitzarte dena

Eta argia ikusi nuen errauts antzo horman

Eta mina ikusi nuen absurdoa eta neurrigabea



---

# Amerria

Harrizko eta haize zakarrezko herrialde batengatik  
Argi perfektu eta zohardiko herrialde batengatik  
Lurraren beltzogatik eta hormaren zuriagatik

Isiltasunezko eta pazientziatzko aurpegiengatik  
Zeinak miseriak aspaldi tankeratu baitzituen  
Hezurrei erantsirik zehatz-mehatz  
Txosten luze errefusaezin baten gisan

Eta eguzkipeko eta haizetarako aurpegi  
orobatsuengatik

Eta beti sukarrez esaniko ele  
Hain maitatuen araztasunagatik  
Eleen kolore eta pisuagatik  
Eleen isiltasun zehatz aratzagatik  
Non aipatutako gauzak altxatzen baitira  
Argiak liluratutako eelen biluztasunagatik

—Harri ibai haize etxe  
Lantu egun kantu hats

Espazio erro eta ur

Ene amerria ene erdigunea da

Ilargiaren mina dut itsasoa negarrez dabilkit

Eta erbestea denboraren muinean txertatzen da.

---

# Lorcaren hilobia

Zugan negar egiten diegu beste hilei  
Datarik gabeko gaubeiletan fusilatuei  
Kartzeletako itzaletan izenik gabe galtzen direnei  
Hain ahantziak ezen ezin baitezakegu ezta  
Haien galde egin haien aurpegia irudika  
Kontsolamendurik gabe negar egiten dugu  
  hildakoengatik  
Amorruaren adarren artean indarraren zamaren  
  pean

Ez dugu onartzen ahal. Zure odola ez da lehortu  
Ez gaude bakean zure heriotzan  
Zure heriotzaren ordua hurbil eta ozar da oraino  
Eta zure hilobirako zabaldutako lurra  
Itxirik ez dagoen zauriaren antzekoa da

Zure odolak ez zuen ez isurbiderik ez irteerarik  
aurkitu

Iparretik Hegora Sortaldetik Sartaldera

Zure odolean itota bizi gara

Horma zuri orotako kare leunak

Idatzia du asasinatu zintuztela

Ez dugu onartzen ahal. Prozesua ez da finitua

Zeren ez zenuen libratu piztiaren ostikoa

Gauak ezin du edan gure tristura

Eta ezkututzen zaituzten arren ez zaude ehortzita

---

# Gaua eta etxea

Gauak biltzen ditu etxea eta haren isila  
Zimenduetatik oinarrietatik hasita  
Lore geldirainokoan  
Doi-doia aditzen da denboraren ordularia

Gauak biltzen ditu etxea eta haren zoria

Orain deus ez da barreiatzen ez banatzen  
Dena erne dago altzifrea bezala

Hutsa bere espazio bizidunetan barrena dabila

---

# Amodio hil batetik

Amodio hil batetik geratzen da  
Denbora astun usadiozko bat  
Non keinuak estropezuka baitabiltza  
Urtean harat eta honat

Amodio hil batetik ez da geratzen  
Oroitzapenik batere  
Iraganak amore ematen du  
Orainaldiak irentsirik  
Eta denboraren itsasontziek  
Zorrotz eta astiki  
Urrunera dute eramaten

Amodio hil batek ez baitu uzten  
Gugan haren potreta  
Luzamendu azkengabearena  
Egitate bat besterik ez da  
Eternitateak ahantzi duena

---

# Bidea

Desertuko ibilaldian banekien

Batzuk hilko zirela

Baina zeru biribilaren azpian pentsatzen nuen

—Non

Ematen dit indarra ene amodioaren mugak?

Eta hara non hurrengo oasira barik hiltzen naizen

Zintzurra lehor eta bizkarrean

Eguzkiaren pisu mugagabea daramadala

Hara non zuritasunez itsu hiltzen naizen

Akituegi ezein ispilukeria begiztatzeko

Banekien

Baten bat

Hilko zela hurrengo oasira barik

---

# Ispiluak

Ispiluek egun osoan dute izekirik distira  
Sekula ez dira opakua  
Eta ilunaren betazalaren azpian ere  
Haien betsein leuna ñir-ñir eta erne dago  
Katuaren betseinak bezala  
Islatu egiten gaituzte. Inoiz ez apaintzen

Halere, arrats beranduko ilunpean bakarrik  
Gelditasuna isiltasunaren gunean ezartzen denean  
Orduan ispiluen doinuan agertzen da  
Bizi zaituzten eta itzaltzen gaituen argia:  
Su hotz eta beirakara baten barruari  
Erauzitako argia



---

# Epidauru

Kardulatzatza egunaren argitan loratzen da. Egunaren eztian pikua da zabaltzen. Horra kanpoko lurraldea non guztia:

argira ekarria baita  
argiaren askatasunera ekarria  
argiaren izu-ikarara ekarria

Hor nauzu eguzkiz eta isiltasunez jantzia. Minotauroa eta jauregia birrintzeko egin dut garrasi. Minotauroaren itzal urdina birrintzeko egin dut garrasi. Aseezina baita. Egunetik egunera gure bizitzako urteak jaten ditu. Gure egunen sakrifizio odoltsua edaten du. Gure ogiaren zaporea gure itsas bozkarioa jaten ditu. Izan liteke olagarro baten tankera hartzea Knososko ontzietan bezala. Orduan esango du bera itsasoko leizea eta errearen ugaritasuna dela. Orduan esango du bikuna dela. Harri bihur daitekeela harriarekin alga algarekin. Tolestu daitekeela destolestu daitekeela. Bere besoek inguratzen dutela. Zirkularra dela. Haatik

banpez ikusiko duzu gizaki bat dela, bere barnean zezen baten indarkeria dakarrena.

Hemen Epidauroko goizean soilik izan ahalko zara libratua. Hemen aireak aurpegia ukitzen dizuzu ezagutzeko eta argiaren ezintasuna hilezkorra begitantzen zaizu. Zure ahotsak bakarrik igoko ditu harri zurbilezko eskaierak. Eta zure bila itzuliko da silaben teoria ordenatua: silabak, baretasunaren ekarle zintzoak.

---

# Jainkoen ilunabarra

Izuzko irri bat erne zen Egeoko uharteetan  
Homerok bioleta lorarazi zuen itsaso gainean  
Kurosak urrats bat egin zuen aitzina batto  
Atenaren zurbiltasunak diz-diz egin zuen egunez

Orduan jainkoen argiak azpiratu zituen munstroak  
tenpluetako frontoietan  
Eta persiarrek gibelera egin zuten beren  
inperioaren barren-barrenera

Garaitza ospatu genuen: ilunpea  
Erakusgai jarri eta sakrifikatu genuen patio zuri  
zabaletan  
Koruaren garrasi erlatsak araztu zuen hiria

Izurdeek bezala bozkario lasterrak  
Inguratzen zituen ontziak  
Gorputza biluzik geneukan aurkitua baitzuen  
Bere neurri zehatza  
Asmatu genituen: Sunion-eko zutabeak argiari  
atxikirik

Mundua gero eta gureagoa zen egunetik egunera

Baina hara non itzali egin ziren

Antzinako jainkoak gauzen barneko eguzkia

Hara non gauzetatik banatzen gaituen hutsartea  
zabaldu zen

Absentziarekin haluzinaturik absentziarekin  
mozkorrik

Eta Sibilak erantzun zien Julianoren mandatariei:

“Zoazte, eta esan erregeari jauregi ederra eraitsirik  
dagoela hautsirik

Phebok jadanik ez dauka etxolarik ez ereinotz  
profetikorik ez iturri kantaririk

Ur hiztuna isildu egin da”

---

# Delphika IV

Itsasoaren orlatik

Non dena ukigabe hasi baitzen ene lehenbiziko  
egunean

Itsasoaren orlatik

Non kaioen aztarna hirukiak ikusi baintuen  
hareatzen

Zeru argiz itsutuak edan bitartean haien hegadaren  
angelua

Non maskorren kolore pisu eta forma

halabeharrezkoak maitatu baintuen

Non olatuen arkitektura etengabe porrokatzen ikusi

Eta begi-zabalik uren gardenean igeri egin bainuen

Anemona haitza kurkuilua marmoka ezagutzeko

Gatzean eta harrian ardatz zuzena zimendatzeko

Eraikuntza posiblearena

Basoen itzalpetik

Non lehenbiziko gauaren izua eta izen-gabezia zertu  
baitziren

Eta non kontzientzia ugarien durundi eta dantza  
onartu bainuen nire baitan

Basoaren itzalpetik itsasoaren orlatik

Oinez abiatu nintzen Delphosera

Sinetsirik mundua sakratua zela

Eta erdigune bat zeukala

Bi arranok seinalatua hegada geldi eta astun baten  
brontzean

Haatik jauregira iritsi nintzelarik hura

sakabanaturik eta deseginik zetzan

Arranoak itzalperik antzinakoenean gordeak ziren

Sibilaren ahoan mihia korapilatua zen

Nik lehenbizi entzundako ura jadanik ez zen aditzen.

Antinoo bakarra izan zen erakusten bere gorputz

txunditua

Bere eguarte gauekoa

**Delphos, 1970eko maiatza**

---

# Delphika V (Auriga)

Eskultoreak amodioz eta doitasunez taxaturiko  
oinen biluztasunak

Erakusten du zein biluzia den lurrean egoteko zure  
moldea.

Tunika luzeak bere erortze artezean adierazten du  
zein soila den

Zure gaztaroko segurantzaz segurua  
Pultsu finak jainkozko esku zehatzak adierazten  
dute

Zein zalu eta sotila duzun pentsamendua Atenak  
bezala

Eta zein sentibera eta barea duzun borondatea:  
Zure zaldiak bezalaxe gidatzen duzu zeure burua

Musu igaliak bezala landare-izerdiz beteek  
Adierazten dute zein estasiatua eta larria den biziari  
dizun maitasuna

Eta zure brontzezko betileen azpian esmaltezko eta  
onixezko begiokin

Zure grina lasaiak begiratzen digu

Zure asmoak:

Ospatzea zure barnean jainkozkoaren ordena  
naturala

Zenbaki immanentea.



---

# Minotauroa

Kretan

Minotauroaren erresuman

Itsasoan bainatu nintzen

Bada dantza zalu bat zezen baten aurrean  
dantzatzen dena

Egunaren antzinateko gaztaroan

Ezein drogak ez ninduen horditu ez ostendu ez  
babestu

Retsina baizik ez nuen edan jainkoei zegokien  
partea lurrera isuriz

Kretan

Lorez apaindu nintzen eta belarren mingots bizia  
murtxikatu nuen

Guztiz esna lurra komekatzeko

Kretan

Zoruari musu eman nion Ulisesek bezala  
Ibili nintzen argi biluziaren pean

Neu ere suntsiturik nengoen hiri eraitsia  
Inork berreraiki gabea bezala  
Halere nire patio hutsetako eguzkitan  
Furia nagusi da ukigabe  
Eta nirekin batera itsaso barrura sartzen da  
Zeren begiak zabalik pulunpatzen direnen arraza  
horretakoa naiz  
Leizea harriz harri anemonaz anemona lorez lore  
miatzen duten horietakoa

Eta Kretako itsasoa barrutik urdina da dena  
Bezperako bozkarioaren opagai miragarria  
Minotauro goibelaren nabigazioen eremua

Pinturak uhinak zutabeak eta ordokiak  
Kretan  
Gutziz esna zeharkatu nuen eguna  
Eta jauregi ozar eta gorrietan barrena ibili nintzen  
Ondoz ondoko jauregi latzetan  
Non ilunpe xuxurlatuaren arnasotsa eraikitzen baita  
Eta ilunantz izugarriaren betsein erdi urdinek  
zelatatzen baikaituzte  
Egunari atxikirik...  
Borrokazko eta aurkaritzazko jauregi dualean ibili

nintzen

Non lirioen printzeak bere goizeko keinuak  
eraikitzen baititu

Ezein drogak ez ninduen horditu ez ostendu ez  
babestu

Uhinean enekin dantzaten den Dioniso ez da ezein  
merkatu beltzetan saltzen

Aitzitik harakoen lore bat legez hazten da, beren  
izatea etengabe

bilatzen eta galtzen duten banatzen eta batzen zaien  
horiena

Eta hori da izatearen dantza

Kretan

Hiri minostarreko adreiluzko murrak

Algaz nahasiriko lokatzez eginak dira

Eta nire itzalaren gibelera biratu nintzenean

Ikusi nuen urdina zela sorbalda ukitzen zidan  
eguzkia

Kretan Minotauroaren erresuman uhina zeharkatu  
nuen



---

# Printzesa ezezagun baten erretratua

Haren sama izan zedin hain fina  
Haren eskumuturrek izan zezaten zurtoinen kraska  
Haren begiak izan zitezzen hain artez eta garbiak  
Haren bizkarrezurra izan zedin hain zuzena  
Eta burua hain tente erabil zezan eta  
Kopeta ganean halako argitasun sinple bat izan  
Esklabo-belaunaldiak behar izan ziren mendetan  
Gorputz okertukoak eta esaneko esku latz  
maratzekoak  
Printze-belaunaldiak zerbitzatzeko mendetan  
Trauskil eta zabar samarrak maneretan  
Diruzaleak krudelak eta iruzurtiak

Hainbeste jende alferrik galdurik  
Hura perfekzio betekoa izan zedin  
Bakartia erbesteratua paturik gabea

---

# Zikladeak

(**FERNANDO PESSOA OROITEAN**)

Lekuaren argitasun frontalak ezartzen dit zure  
presentzia

Zure izena azaleratzen da hemen

Zu izan zinen zeure negatiboa errebelatuko balitz  
bezala

Ifrentzuan bizi izan zinen

Iruntziko bidazti nekaezin

Zeure buruagandik urrun

Zeure buruaren alargun

Bizitzaren agertoki harturik Lisboa

Eta esne-denda baten gainean errentako gela bateko  
apopiloa

Merkataritza-etxe bateko enplegatu zintzoa

Baixako kafe-etxeetako bezero ironiko delikatu eta  
prestua

Tajora begira dauden kafe-etxeetako igarle apala

(Han oraindik ere mahaietako marmolean

Xerkatzen dugu zure eskuen aztarna hotza...

Zure eskuen atabal hautemangaitza)

Bizi izan gabearen furfuriak laurdenkaturik  
Zeugandik besterengandik bizitzatik kanpo  
Egunean eduki zenituen zure koaderno guztiak  
Zehaztasun arretatsuz marraztu zenituen mapak  
Zure absentziako nabigazio ugarietarako...  
Izan ez zen eta izan ez zinen hori esanda geratu zen  
Haizealdean ernatutako uharte bat bezala  
Berun zunda astrolabio iparrorratzekin  
Utzi zenuen erbestea

Geroago jaio zinen  
Ordurako baten batek higatua zuen egia osoa  
Indiarako bidea aurkitua zen  
Jainkoetatik bakarrik geratzen zen  
Iragaite zalantzazkoa  
Paisaiaren murmurioan eta usainean  
Eta bazenituen begitarte asko  
Inor izan ez arren dena esateko  
Ifrentzuan iruntzian erauntsian bidaiatzen zenuen

Halere nik temati dei degiot —oi zatikatua—  
Bat egin zenuen uneari

Eta ospatzen dut nola iristen zaren zuk inoiz jo  
gabeko uharteetara

Hauek dira zure begitartean barrena jitoan  
dabiltzan artxipelagoak

Hauek dira zure bozkarioaren izurde lasterrak  
Jainkoek zuri eman gabeak eta zuk nahi ez  
izandakoak

Herrialde honetan estatuen haragia zurzuriak legez  
ikaratzen da

Argiaren arnasa arinak trabeskaturik  
Hemen gauzen arnasa-urdinak diz-diz egiten du  
Hondartzetan non ispilu bat baitago itsasaldera  
begira

Betidanik galdezka ari zaidan enigma hemen  
Biluziagoa eta ozarragoa da eta horregatik dei  
degizut:

“Zergatik txirtxilatatu ziren zure imintzioak?  
Nork inguratu zintuen murriz eta leizez?  
Nork isuri zituen lurrean zure sekretuak?”

Dei degizut ontzi honetan iritsiko bazina bezala



Eta oinak uharteotan jarri

Eta haien larregizko hurbiltasuna zutaz jabetuko  
balitz bezala

Zure gainean makurtutako begitarte maitatu baten  
pleguan

Leku honetako udaminean hots degizut zuri  
Urtaro latzean animalia batek bezala hibernatu  
zenuen horri

Urrun egon nahi zenuen horri margo bat ikusteko  
bezala gibelaturik

Mingarri zitzaizun distantzia nahi izan baitzenuen

Zuri hots degizut... biltzen ditut hondakinak  
kondarrak atalak...

Zeren munduak eztanda egin du harrobi batek  
bezala

Eta zoruan pirritan dabilta besoak eta kapitelak  
Zutabe bananduak harri-ezpalak

Eta anphoratik pusken barreiuia baizik ez da  
geratzen

Eta horien aurrean jainkoak arrotzu egiten dira

Halere hemen jainkosa gari-koloreek

Beren hatzen harpa luzea jasotzen dute  
Eta eguzki urdina sorgintzen, non deika bainabilkizu  
Non deika bainabilkio zure absentziaren hitz  
inbertsonalari

Aileza hauts festaren uneak zure dolua  
Oi zeure buruaren alargun  
Eta ailira junta izatea eta egotea  
Ezkontzaren batasunean

Zure ontzia Thassos-en zain balego bezala  
Penelopek  
Bere goiko ganberetan  
Bere ileen artean harilkatuko bazintu bezala

---

# Árpád Szenes-entzat

Hala goiztirian askatzen da argia  
Eta batzen da biderkatzen  
Asmatzeko ikara astrapala orgia  
Erresuma agertua

Oasia eta palmadia... zehatza distantzia  
Jasotakoaren asmazio arretatsua  
Pintoreak denbora arnastuan pintatuaz  
Begitarte maitatu baten gisa ezagutzen du mundua

Pintatzen ditu azalera luzeak lerro luze lisoak  
Lurraren ibilera nasaia eta haren biloak

Pintatzen du margolana margolanaren barruan  
Ehuntsen da bilbez bilbe ehundegian ehuna nola  
Margolan deitzailearen margolan deitua  
Pintatzen ditu zomorro egiptoarra palmondoaren  
azala

Hala goiztirian askatzen ditu argiak  
Samurtasun sakona gauzekiko gure ituna

Horra eguzkiaren mitoa gariaren esku fina zomorro  
grekoa

Amodioak eguzkia eta beste argizagiak mugiarazten  
dituenak

—Dante Alighierik dioenez—

Mugitzen eta egokitzen ditu gela eguna pintzela



Minotauroaren jauregietako bat zen  
—Ene haurtzarokoa enetzat aurrena—  
Han ziren zalagarda itsuak nahasiak  
Gaueko iluna eta eguneko argia  
Han baziren furfurua deiadarra esangabea  
Han nahasmena zen denean legea  
Han Kaosa zen denaren sortzailea

---

# Apirilaren 25a

Hauxe da espero nuen goizaldea

Egun lehen oso eta garbia

Gauetik eta isilpetik irteteko

Eta libre bizitzeko denboraren substantzia

---

# Iraultza

Horra etxe garbia  
Horra zoru eskobatua  
Horra ate irekia

Horra hatsarre aratza  
Horra denbora berria  
Tatxarik eta biziorik gabea

Horra herri baten barneko  
Itsasoko ahotsa

Horra orrialde zuria  
Poema azalera dadin

Horra arkitektura  
Gizakumeak jaso dezan  
Bere bizilekua



---

# Egitasmoa I

Alentejoko murru luze eta zuria  
Garbitasunerako eta leunerako desira  
Hemen solairu bakarreko arkitekturak  
Badu egitasmo baten argitasun biluzia.

---

# Lagos II

## I

Lagos han berrasmatu nuen mundua lehengo uda  
batez

Lagos han aurkitu nuen  
Ikusgaiaren molde berri bat oroitzarik gabekoa  
Argia kare zehatza bezala karea bezala  
Lagos han ikasi nuen bizitzen unea  
Istantik garbi eta berriena

Lagos orain lehenaldian aipu dudana  
Lehengo uda burugabeki absente baten antzera  
Enetzat ia arrotz eta inoiz eduki gabea

## II

Aurrez aurre topatu nuen herrialdea  
Betidaniko esperantza eta promes  
Jaio izanaren dohain hutsez  
Eta eguzkia nagusi zen eta Lagos gardena

### III

Lagos tolesgabe eta buruargitasun-irakasle  
Han beteagoa da inorentzat bizia  
—Nola aintzat hartu ez  
Haren berunezko eta egitasmozko argia?

### IV

Edo galdua dukegu apirilez  
Hasierako egun oso eta garbia  
Gure denborarik zehatzena bizi izan zuena?  
Paraleloan goaz antza  
Negarrez gomutan lehengo uda bat balitz lez  
Herrialde lineal eta aratza  
Eta haren berunezko eta egitasmozko argia?



---

# Lisboa

Ahotan hartzen dut:

“Lisboa”

Ibaia —hegotik etorririk— zeharkatzen dudalarik

Eta iristean hiria nire izenetik sortuko bailitzan

zabaltzen delarik

Zabaltzen eta jaikitzen da bere luze-zabal gauekoan

Bere urdin- eta ibai-erakustaldi luzean

Bere muino pilatuzko gorputzean...

Hobeto ikusten dut ahotan hartzen dudalako

Dena hobeto ageri da ahotan hartzen dudalako

Denak hobeto ageri du bere izatea eta gabezia

Ahotan hartzen dudalako

Lisboa beraren izan-ala-ez-izaneko izena

Beraren meandro izu loezin latorrizkoak

Eta beraren antzerkiko gauzen dirdira sekretua

Beraren intrigazko eta maskarazko irri etorkorra

Urruneko itsasoa mendebaldean hedatutakoan

Lisboa txalupa handi bat bezala aldaroka

Lisboa ankerki eraikia bere absentzian barrena

Hiriaren izena hartzen dut ahotan

Ikusteko hartzen dut ahotan

---

## Uharteak V

Han ikusgaiaren ozartasuna ikusi genuen  
Agerkunde osoa bistaratua guztizkoa  
Bai eta amesten ere ausartu ez ginena ere  
Hura zen egiazkoa

---

## Jitoa VII

Beste batzuek jauna itsasoteak aipatuko dizkizute  
Nik aipatuko dizut zer hondartzatan urratu zen  
Kreazioaren goizetan lehendabizikoa

Nik aipatuko dizkizut biluztasun sortu berria  
Eztitasun iheskaria zalutasun arinkara  
Gizaki oraino lur-kolore haien ezaugarriak  
Haintzat antzinako jainko jagoleak ginen  
Berriz etorriak

---

# Jitoa IX

Hiriak eta xiriak

Baina orobat

Hain arkitektura handiaren harridura

Zetak lurrinak eta eztidura

Mintzoetan eta imintzioetan

Gauaren patio handiak eta haien lore

Ikarazkoa eta soseguzkoa



---

# Eguzkia horma itsasoa

Begirakunea saiatzen da mundu bat biltzen furiek  
hura txirtxilatatu eta gero.

Hiri txikiak: horma kareztatu eta berriz kareztatuak  
hasmentako bozkarioari  
iraunarazteko.

Kaleak erdi eta erdi eguzkitan eta gerizpetan.

Tapa urdin itxiko leihoak: bortizki urdinak  
aurpegirik gabeak.

Leku hustuak, labirinto mortua: absentzia trinkoa  
zezen baten arnasestua bezain.

Kanpoaldea eguzkiaren mende, horma patio  
terrazetako errege baita.

Barrualde ilunak argitasunetik hurbil, gordeak eta  
erneak: isiltasuna barrandan  
eguzkiaren galtzada-harrietako  
garrasiari.

Diotenez sekretu batek irents ez gaitzan derrigorra  
da hura ozen esatea terraza batean  
edo patio batean eguzkipean.

Horixe da poetaren misioa: argitara eta kanpora  
ateratzea izua.

Aurpegirik gabeko hormak absentzien ugaritasunak  
ubelduak.

Gizakirik ez, gizakiaren aieruak baizik, haren artea,  
haren usadioak, haren urdin bortitza,  
hori trinkoa, karearen ozartasuna.

Hesi-horma astiro porrokatzen dena... tinta  
despintatua... ate irekia zoru  
berdeko patiora: arropa lehortzeko  
eguneroko egutera eta antzerkirako  
eremu. Baina baita portiko  
arranditsua ere irekia gizakiaren  
bizitza sakratura.

Horma zuri karegabetua, eta urdindua orban  
lainotsu eta ameslariz irisaturik.

Ateak bere taxu akasgabea marrazten du gizakiaren  
neurrikoa: xingolazko errezelen  
koloreek salatzen dute festa baten  
nostalgia.

Han barruan ilunpea fresko eta barea da.

Ez aurpegirik, ez soslairik.

Gizakiaren markak gizakiaren historiaren kontari.

Goialdean hormak ez du deus ixten edo inguratzen.

Horma zuri luzea haitzetako itzalen eta uretako

bristaden artekoa.

Leihoaren karratu irekian itsasoak ñir-ñir dagi  
ezkataz eta distiraz estalita  
haurtzaroan bezala.

Itsasoak estatua arkaikoen moldeko bere irria  
erakusten du.

Argi guztia urdintzen da.

Gure-gurezko alaitasuna ezagutzen dugu: leku  
sakratuaren seinale.

---

# Idaztea

Mocenigo jauregian bakarrik bizi zelarik  
Lord Byron-ek sala handiak erabiltzen zituen  
Bakardadea ikusteko mirailik mirail  
Bai eta ateen ederra ere inor ez igarotzean

Isilaren itsas hotsak aditzen zituen  
Eta urratsen oihartzun galdua urrutiko korridore  
batean

Zoru leunduaren distira garbia maite zuen  
Eta sabai gora itzal-kiribilekoak  
Eta eserleku bakarrean jesartzen zen arren  
Aulkiak hutsik ikusten zituen pozarren

Bistan da inork ez duela hain bizi-eremu handia  
behar

Baina idazteak bakarraldiak eta desertuak eskatzen  
ditu

Eta beste gauza baten itxuran itxuratzen diren  
gauzak

Irudika dezakegu mahaian jesarrita

Irudika lepo altu tapitua

Alkandora zuria zabalik

Paperaren zuria idatziaren aramuak

Eta kandelaren argia —margolan batzuetan nola—

Adiaren bahituraren abioa

---

# Kore bat

Garai eta solemne argia baino garaiago  
Partenoiaren zurbiltasun sakratu astuna  
Nagusitzen zaio egunari

Hostaila dantzan ari da haizeak eraginik

Ondoko mahaian kore sudur-zuzen eta ile-  
txirikordatuak

Interprete-lanak egin eta bere kikara altxatuz  
Topa egiten du germaniar merkatariekin, zeinek  
Grazia eta ia Europa osoa arpilatu eta  
Haien jeneralek porrot egin ondoren ere  
Gerra irabazi baitzuten

Kafeak hautsa dauka: turkoen erlikia

Halere erretxina-ardoan mahastiaren freskuran  
Haizeño goxo apalean zutabe zurbiletan  
Jainkozko zerbait datorkio bisitan  
Supituki istanteko argiari

---

# Adiskideak

Itzultzea hara

Non uhinaren hauste berdeak

Bitsak ganduak zeruertzak hondartzak

Osorik gordetzen baitute oldarrezko

Gaztetasun antzinakoa...

Nola baina adiskiderik ezean

Nola hartu-emanik besarkadarik komuniorik ezean

Arnastu algen kresal-usaina

Eta itsas izarra hartu nire eskuan.

---

# Kos-eko itsas kurkuilua

Itsas kurkuilu hau ez da nik kausitua hondartzan  
Aitzitik Mediterraneoko gau urdin eta beltzean  
Kos-en kaialdeko saltoki batean erosi nuen  
Itsasontzien masta kulunkarrietatik hurbil  
Eta neurekin ekarri nuen denboraleen durundia

Haatik han ez ditut aditzen  
Ez Kos-eko itsas marruma ez Egina-koa  
Bai ordea hondartza luze zabalaren kantorea  
Hareatza atlantiko sakratuarena  
Non nire arima betiko sortu baitzen.





Denak amerri latz baten seme-alabak itsaso gainean  
herratuak.

Itsaso zabalean gizakiek  
Jainko-jainkosak dirudite  
Erritu antigoaleko eta sakratu batean  
Ur, argi eta haize  
Haien gorputzak itzultzen dira  
Osorik eta erritmoan  
Biziaren esentziara berera.